

XXVII. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA

Ereintza Elkarteko Eskulangintza Saila

SARRERA

Euskal Herriko Eskulangintza Azokaren XXVII. edizioa apirilaren 30etik, larunbata, maiatzaren 2ra arte, astelehena, ospatu da, eta Udal Merkatuaren balioanitzeko eremu berria izan du kokagune. Iaz ez bezala, kokagune honen egoera askoz ere hobea izan da, bai apainketari dagokionez, baita zerbitzuen aldetik ere, eta bestalde, postu edo "stand"en banaketa egokiago batek erosotasun handiagoa ekarri die ikusleei. Honen guztiaren berri ematera gatozkizue "OARSO" aldizkariaren urteroko topagune hau aprobetxatuz.

GAI BEREZIA: PAPERA ETA KARTOIA

Erreterriako azokaren ezaugarrietako bat urtero gai edo materiale bati eskaintzen zaion arduraren berezia da, eta XXVII. edizio honetan paperezko eta kartoizko eskulangintzari eman zaio. Hori dela eta, gai nagusi honekin loturiko dozena bat artisau ekarri dira, eta hasieran espero ez genuen joko eman dute, bai ofizio eta produktuen aniztasunarekin, baita beren "stand"ak eskeini duten kolore eta alaitasunarekin ere.

Arlo honetan aipatu beharra dago Azokako logotipoa protagonista izan dela. Izan ere, eta antolaitzaleen enkarguz, Javier Murillo artisauek harri-kartoizko logotipoaren erreproduzio handi bat egin baitu.

ZABALTZE UNEA

Azokaren zabaltze ofiziala, apirilaren 30ean, larunbata, goizeko 12etan izan zen. Joxe M^a Izagurre Ereintzako lehendakariaren ongi etorriaren ondoren, Foru Aldundiko Berrikuntza eta Jakintza-ren Gizartearen Departamentuko Zuzendaria den Angel Irastorza jaunak hartu zuen hitza, eta bere ondoren, azokari hasiera emanez, Erreterriako Alkateak, Miguel Buen jaunak. Bertan ziren, baita ere, bere babesa ematen digun Kutxako ordezkariak, Erreterriako Udaleko hainbat zinegotzi eta komunikabideetako ordezkariak.

ARTISAU

PARTE-HARTZAILEAK, LANGINTZAK ETA GEOGRAFIA JATORRIAK

Azokara etorri behar duten artisauen zerrenda osatzerakoan, urtero aurkitzen gara eskari guztiak ezin onarturik, guneak berak mugatzen baitu artisauen parte-hartzea, batez ere oraindik guztiz bukatu gabe dagoelako. Beraz ohiko irizpideak jarraituz, hau da, kalitatea, aniztasuna, langintza berrien aurkezpena eta nolabaiteko geografia ordezkaria, selekzio prozedura baten ondoren osatu zen parte hartu duten 50 artisauen zerrenda. Hona hemen langintza eta geografia jatorriaren araberrako sailkapena:

Gai berezia: **Papera eta Kartoia:** Koadernaketa artistikoa (1); Zaharbertitze lanak (1); Grabaketa eta estanpazioa (1); Harri-kartoia eta "mache" paperaren lanak (2); Papergintza(1); Paperaren eskulangintza (2); Kodizeak eta kaligrafia (1); Txo-txongiloak (1); eta Kartoizko kriseiluak, kaxak eta papiroflexia (2)

Zura: Altzarigintza eta taila (3); Jostailuak (1); Marketeriagintza (1); Gazta egiteko tresneria (1).

Otagintza: Gaztain zumitzezko otargintza (1); Xisterak (1).

Burni eta metalak: Burdinlantza (1); Bitxigintza (2); Esmaltegintza (1).

Buztina eta harria: Buztingintza (1); Zerami-ka (2); Argintza (1).

Beira: Beira tailatua (1); Beira modelatua (1); Beirateak (1).

Ehuna: Ehungintza (1); Seta margotuak (1); Patchwork lanak (1); Espartingintza (1); Euskal jantzia (1).

Larrua: Pilotak eta eskularruak (1); Larrugintza (1); Oinetakoak (1).

Musikatresnak: Euskal musika-tresnak (1); Harizko musika-tresnak (1).



Bestelakoak: Lore idortuak (1); Itsas modelogintza (1); Beira eta portzelanen dekorazioa (1); Xaboi naturalak (1).

Elikadura: Taloak (1); Erlazaintza (1); Konfiteritza (1).

Geografia jatorriaren arabera berriz, Gipuzkoatik (22), Arabatik (4), Bizkaitik (9), Nafarroatik (8), Ipar Euskal Herritik (4) eta Pabetik (1) etorri dira. Hauetatik hamabosten bat berriak, hau da, lehen aldiz Erreenteriako Azokara etorritakoak. Artisauak eskainitako ekoizpen edo produktu motei dagokionez, berrikuntza eta ugaritasuna gero eta nabarmenagoak dira.

HOBEREN DEKORATUTAKO ERAKUSGUNEARI SARIA

Urtero ohi den bezala parte hartzen duten artisuen artean, kalitate estetiko handiena duen "stand"-arentzat izaten da sari hau. Hamabigarren urtea betetzen du Ereintzak ematen duen sari honek (450 euro eta Agiria), eta beti bezala Gipuzkoako Bazkondeak izendatutako epaimahaikideek hautatu dute irabazlea. Aurtengo saria "bere lehengaietan edo landutako produktuetan oinarrituta erakusgunea hobekien apainduta duena" leolari jarraituz, Iruñetik etorritako Ana Cobos anderearentzat izan da, "mache" paperean egindako lan koloretsuei esker.

WEB-ORRIA

Gogorarazi nahi dugu web-orria eguneratua dugula. Hona hemen www.ereintza.com orrian sartuta aurki daitezkenak:

Parte-hartzaileak: parte-hartzaileen zerrenda osoa, beren izena, harremanetarako telefono-zenbakia eta garatzen duen artisautzaren argazkia.

Kokapena: azoka non kokatua dagoen eta bertara nola iritsi daitekeen.

Erakusgunea: azokaren barruan stand bakoitzak duen kokapena.

Babesleak: babesleen zerrenda, beren web-orrietarako estekak barne.

Posta: azokari buruzko iradokizunak edo iruzkinak bidaltzeko.

Albisteak: esteka honetan, azokaren inguruan sortzen diren azken berriak gaineratzen dira. Halaber, prentsa txostenak eta komunikabideei eskainitako informazioak bertan agertzen dira.

AKTIBITATE OSAGARRIAK

Azokaren elementu aberasgarri moduan aurren bi ekintza berezi eta nolabait bata bestearekin lotuak antolatu dira Reina Aretoan. Biak artisautzaren etorkizunari buruz ditugun kezka eta zalantzak plazaratu nahi izan dituzte.

Lehenengoan, maiatzaren 1ean, goizeko 10etan ospatua, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos deritzonak argitaratutako "**Euskal Artisautza-Artesanía Vasca**" CD-ROMa aurkeztu zen. Bertan, eta oraingoz, 66 artisauen lan-prozedurak eta ekoizpenak modu oso egokian biltzen dira; bakoitzaren historia pertsonal eta profesional laburraren ondoren, beren produktuak eta lan-prozedurak deskribatzen dira, argazkiekin lagunduta. Aurkezpen honen ondoren "Eskulangintzaren erronkak: artisauaren jardunak etorkizunari begira" izenburuko mahai-inguru bat antolatu zen, artisautzaren munduan oso ezagunak diren Carmelo Urdangarin eta Antxon Agirre jaunek (CD-ROMaren egileak) aurkeztua.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARTISAU INDUSTRIEN AZTERKETA

Bigarrena, maiatzaren 2-an, goizeko 10etan ospatu zen eta aipamen berezia merezi duela uste dugu, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatutako **Euskal Autonomia Erkidegoko Artisan Industrien Azterketaren** aurkezpen honek.

Izan ere Azoka bera eta eskulangintza, orohar, etorkizuneko erronka berrietara egokitzeko asmoz, antolatzaileok urte dezente daramatzagu hausnarketan, gogoeta ihardunaldiak antolatuz eta eskulangintzaren inguruko foroetan parte hartuz. Eta ekintza hau hausnarketa-ildo horren barne ulertu behar da.

Honela bada, Eusko Jaurlaritzako Kultur Zuzendaria den Jose Antonio Arbelaiz jaunak azterketa hau aurkezterakoan, berau bi urteko aurre-lanen ondoren 2004-ko irailean aurkeztutako Kulturaren Euskal Planaren barruan kokatu behar dela adierazi zuen. Plan horretan hainbat arlo kulturalekin batera, artisauen industriak ere hartu ziren kontuan, eta horretarako komisio berezi bat antolatu zen. Komisio honek hilabete batzuetako lanen ondoren eta beste hainbat ondorioren artean, artisautzaren egungo egoera ezagutzea beharrezkoa jo zuen, ikuspegi orokor bat jaso ahal izateko; izan ere, egun, artisautzaren kompetentziak Lurralde Historiko bakoitzeko Foru Aldundian baitaude, legedi eta esparru ezberdinetan barreiatuta.

Ikertalde enpresak egindako Euskal Autonomia Erkidegoko Artisan Industrien Azterketa hau,



goian aipatutako behar horren emaitza eta aldi berean artisau sektorearen egoeraren adierazgarria da. Iñigo Artetxe jaunak aipatu zuen bezala azterketa honen lehen atalak artisau-lantegien hainbat arlo jasotzen ditu, hala nola: enpresen dimentsionamendua, lan-materialaren araberezko banaketa sektoriala (zura, keramika, burdin edo metalak, etab.), enpresen forma juridikoa, artisauen profila adina, sexua, ikasketa eta abarren arabera; enplegatuen kopurua, produktuen dibertsitatea, ekipamendu eta instalakuntzak, merkaturatze bideak, asoziazionismoa, etab.

Bigarren atalan berriz akzio plan baterako oinarriak jartzen dira, sektoreraren ahultasunak, mehatxuak eta indarrak zeintzuk diren kontuan harturik. Lehenengoan artean honakoak aipa daitezke: sektorearen murriztasuna, heterogeneotasun handia, erregulazio administratibo anitza eta oso ezberdina, artisau elkargoen fragmentazioa, mikroenpresen ohiko mugak, produktuen kalitate maila oso ezberdina. Mehatxuen artean daudenak hauek dira: produktu industrial eta garapen bidean dauden herrialdeetatik datozen produktuen kompetentzia; azoken merkaturatze bide papera hondatzea, hala moduzko azoken ugaritasuna dela eta (jendearen

gutxitzea nabaria da); belaunaldien errelebo urria, ondare etnografikoaren galtze progresiboa.

Indarren artean berriz, erresistentzia handiko sektorea dela aipa dezakegu, artisau enpresa "bikainen" multzo garrantzitsu batekin, euren aktibitatea grinez bizi dutenak; era berean, artisau produktuen balio progresiboa, turismo eta kulturarekin erlazionatuta zabaltzen zaion esparrua, eta egungo informazio eta komunikazio teknologiek eskeintzen dizkieten aukerak.

Etorkizunari begira egiten diren proposamenen artean, eta lehen pauso eta baldintza bezala, Artisautzaren Erakunde-arteke Foro baten beharra aipatzen da. Foro hau, bakoitzaren kompetentzi-arloa errespatatuz, hiru Diputazioek, Eusko Jaurlaritzak eta artisau sektorearekin zerikusia duten jende eta elkarte profesionalek osatuko lukete eta erreflexio eta akzio gune egokiena izango litzateke.

BUKAERA GISA

Une hauetan uste dugu, goian aipatutako Foroa martxan jartzea behar-beharrezkoa dela eskulangintzaren etorkizunerako, eta gure aldetik prest gaude prozesu hori bultzatzeko bertan parte hartuz. Eta asmo honetan Udalaren laguntza eta ahaleginak gurekin izango ditugula argi dugu, Azokaren gaurko gunearen instalakuntzak egokitzen jarraituz eta behar izanez gero, Erreterria artisautzaren kokagune iraunkor eta garrantzitsuena bihurtuz.

Azkenik, ospatu berri dugun XXVII. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka aurrera eramatea ahalbidetu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Lehenik eta behin, parte hartu duten artisau guztiei. Eskerrak ere, etorritako ikusleagoari, hala nola bere lana eta ardura jarri duten komunikabide eta beste zenbait zerbitzuei ere; eta nola ez, etorritako Agintariei, eta bere laguntza eta babesa urtero ematen diguten erakundeei: Gipuzkoako Foru Aldundiari, Erreterriako Udalari, Gipuzkoa-Donostia Kutzari eta aurrez bereziki Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari, bere Artisau Industrien Azterketa hori lehen aldiz Erreterrian aurkezteagatik. Bihotzie berri guztiei gure eskerrik beroena.